



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2008-06-27

VI. URTEA 1.471. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Hitanoa erabiltzea izango da 'Mintzalaguna'-ren hurrengo erronka

TOLOSA Aitzol Euskaltegian jarraituko dute ikasitakoa eguneroko bizitzan txertatzea xede duen ekimenarekin

GUZTIEI ZABALIK Hitanoa, batez ere, gazteek erabiltzea lortu nahi dute; dena den, denentzat irekia da ekimena >3



Natural England, Ancient Tree Forum, eta Woodland trust taldeko kideak, Joxe Migel Elosegi leitzarrarekin. N. GARZIA

EUROPAN PAREKORIK EZ DUEN NATURA- ONDAREA ZAINTZEN

LEITZA Ingalaterrako hainbat taldeko kideak izan dira egun hauetan Leitzalarrean, pasa den urtean moarratutako zuhaitzak ikuskatzen >7



J. SAIZAR

JON FERNANDEZ DE ANTONA ZALDI EGUNAREN ANTOLATZAILEA

«Erostea baino, zaldia mantentzea izaten da garestia»

LEABURU Zaldi Eguna izango da bihar Leaburun; antolaketa lanetan aritu da leaburuar zaldizkoa >5

Eskualdeko lau segalari ariko dira Gipuzkoako txapela lortzeko lehian, etzi

SEGA 'Urki', Goikoetxea, Aranalde eta Arteaga izango dira finalean, Zaldibian >24

Hiru pertsona atxilotuta, Gipuzkoan heroinarekin trafikatzegatik

TOLOSA Tolosaldean, Donostian eta Pasaian banatzen zuten droga >7

Z **Zurea da hitza**

Atal honetan zuen keaxak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Ikurriña Leitzako udaletxean

Ikurriñaren aldeko ekimen berri bat ezagutzera eman dute Leitzan etxetan zabaldu duten horri baten bidez. Bertan Ikurriñak Leitzan izan duen bilakaeraren errepaso labur bat egiten da. Ikurriña berreskuratzeko ekimen guztiak txalogarri eta guztiz aipagarriak dira eta horretan leitzar gehienak ados egon gaitzke. Dena den idatzi horretan, aurreko legealdiari buruzko, zenbait adierazpenak ez dira zuzenak. "2005. urtean, Nafarroako Gobernuak, 1981. urtean onartutako ikurren inguruko erabakia praktikan jartzea erabakitzen du beste dekretu baten bidez."

Hau ez da horrela. Nafarroako Gobernuak 2003. urtean 1981ko legeak Ikurriña jarri ahal izateko uzten zuen zirrikitua ezeztatzeke, legea aldatzen du. Horren ondorioz zigortu ez zitekeena, hots Ikurriña Udaletxeko balkoian jartzea, zigortu daiteke. Eta lege berri hau da 2005. urtean praktikan jartzea erabakitzen duena, eta ez 1981etako.

"Ondorioz, garai horretan zegoen alkateak, herriari ezer galdetu gabe eta bere erabakiz; 10 urteren ondoren, Ikurriña kendu zuten herriaren ezinegona sortuz." Hau GEZURRA da, alkateak ez baitzuen Ikurriña bere erabakiz kendu. Ikurriña kentzeko sententzia judicial bat heldu zenean, honen berri eman eta zinegotzi guztiak (Larraingoak barne) bi bileretara deitu ondoren, Ikurriña jasotzea erabaki zen Aralar eta EAko zinegotzien aldeko botoekin.

Nonbait, ez zen oso erabaki okerra izan. Udal berria eratu zenez geroztik urte bat pasa eta ez baitute atzera bota, nahiz eta gehiengo osoa izan. Egun puntualean jartzen du-

tela esanez garbitu nahi dute beren burua. Zergatik ez dute 2005ean hartutako erabakia atzera bota eta erabat jartzen? Gainera, orain ere norbaitek kenduko du, egun puntual horiek pasa ondoren.

"Honen ondorioz, Ikurriñaren Aldeko Taldea sortu zen herriari, Herri Kontsulta egin asmoz. Baina, Aralarren jarrera zela medio, zapuzturik gelditu zen kontsulta hau." Hau ere ez zen horrela izan. Kontsulta bertan bera utzi zutenak Larrairi Herri Plataforma, EA eta Ikurriñaren Aldeko Taldea izan ziren, Aralar deitu ez zuten bilera batean.

Kontsulta honi buruz, Aralarrek argi utzi zuten, kontsulta egiteko egin ziren bileraguztietan, ez zegoela ados egin zen galderarekin, ez baitzigen Udalean hartutako erabakia defendatzeko aukerarik ematen. Galdera aldatzen saiatu baginen ere, ez omen zegoen beste galdera bat adostu zutena bezain zuzena. Geroago Goizuetan ikusi zen hori ez zela horrela, baina lortu nahi zutena gu-

defendatzeko aukerarik gabe uztea zen. Horren aurrean, Aralarrek galdera harri beste erantzun bat ematea erabaki zuten, baliorik gabeko bozaren bidez eta egun batzuk lehenago banatu zituen bere papertxoak, bere erantzun propioarekin.

Gure erabakiari erantzunez, hiru talde haiek herri kontsulta bertan bera uztea erabaki zuten, herri informazio objektiboa ez zuela argudiatu. Berak izan ziren, herriari hitz ukatu ziotenak. Gure erabakiaz bazen zuzena, herriak bozetan adieraziko zuten. Baina aukera hori eman beharrean, herria zuzen aukeratzeko prest ez zegoela erabaki zuten, beste garai batzuk gogora ekarri. Puntu honekin bukatzeko, herri kontsultaren aldeko taldeak, kontsulta bertan behera gelditu ondoren, berretsi zuten kontsulta egiten zela. Zergatik ez da egin? Zergatik eta galdera ber berarekin ez da orain egiten Aralar "oztopoa" ez dela?

Jo dezagun idatzi honetan aipatu ditugun arrazoiak ez dizkizuela

konbentzitzen, jo dezagun ez direla zuzenak, nahiz eta aipatzen duguna, guztiz egia izan. Horrela izango balitz ere, begiratu dezagun etorkizunari. Ongi dago herriaren babesa bilatzea eta ekimenak antolatzea, baina gai hau udalaren eskuetan dago, baldintzatuta ikurren legearengatik, noski. Udalak baloratu behar ditu ondorio legalak, besterik ez. Gure ustez, udala babestu behar zen eta horrela eskatu genuen herri kontsultaren paperetan. Orain agintean daudenak, alkatearen dimisioa eskatu zuten eta beste aldetik udaletxean ikurriña jartzeko mozioa aurkeztu zuten. Zergatik ez dute orain mozio hori aurkezten? Gogoratu behar da, orduan mozio hori ez zela onartu, Aralar eta EA abstenitu zirelako.

Gai hau, gaurko agintariak, aurreko legealdian eskatzen zutena egiten balute, azkar moldatuko litzateke, ikurriña jarri eta kitto... gero geroakoak, zergatik ez dute ikurriña modu iraunkorrean jartzen?; ez da izan, gure emandako arrazoiak egiazkoak zirela? Zoritzarrez, denborak arrazoa eman digu. Lehen ikurriña berehala jartzea eskatzen zutenak, orain jartzen ez badute, zerbaitengatik izanena da.

Esandakoa. Gauzak argi eta garbi utzi behar dira, gure ustez. Beste aldetik, Ikurriña berreskuratzeko ekimen guztiak beharrezkoak dira eta alegin horretan leitzar gehienak, ados egon gaitzke.

Leitzako Aralarkideak.

San Joan sua Aitzon

Aitzon 09:15a aldera sua bedeinkatu, piztu eta Artea dantza taldekoek suaren bueltan dantzatu zuten. Ondoren zahagi ardoa izan zen, horretarako Udalak ardoa jarri.

Aitzoko Udala.

Pixka bat es poco**» Kale kantoitik**

Joexemi Saizar

U da honetan euskara erabiltzera animatzeko kanpaina instituzionala erakargarria dela aitortuz hasi nahi dut. Baina lehen ikasgaia gaizki erakusten hasten da, pixka bat gutxi delako. Hala ere ulertzen dut euskaraz egitera bultzatu nahi dituela euskaldunberriak eta etorriko diren kanpotarrak mezu fresko, alai eta gazte baten bitartez.

Pixka bat disfrutatu dugu aurtengo sanjoanekin. Aste osoko jaiki dituzten herri batzuekin konparatuta, hemen lau egunetan kontzentratzen dira ekitaldi nagusiak (aurreko asteburura aurreratutakoak kontuan hartu gabe) eta lau horietatik bitan nabari da festa giroa: Koadrilen Eguna eta San Joan eguna, lehena eta azkena. Pixka bat asko da.

Kanpotik etorritako Korta, Oskorri, Kerobia eta beste musika taldeak, su artifizial, toreatzaile eta kirolariak herriko dantzari, eskopetari, koadrila, musika talde, arraunlari eta beste kirolariekin batera festa giro polita jarri dute. Igandea eta astelehena izan ziren egunik ahulenak, beste egunetan parte-hartzaile gehiago izanik giro hobea lortzen delako. Aspertu zaretanok hasi pentsatzen datorren urtean zertan parte hartu: eskopetari, arraunlari, koadrilan, dantzari...

Blues pixka bat entzuteko parada izango dugu asteburu honetan. Eta sanjoanok gutxi iruditutako zaizkionarentzat sanpedroak ere bertan ditugu eta sanferminak gero eta gertuago. Beraz, parranda pixka bat egiteko ere bada aukera.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra



BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia)
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala
Tolosa (Bellatokia)

'Mintzalaguna'-ren datorren ikasturteko erronka hika erabiltzea da

Euskara » Joan den ikasturtean Udala Euskaltegiak martxan jarritako ekimenari jarraipena emango diote.

ERREDAKZIOA

Euskara ikasten ari direnek ikasitakoa eguneroko bizitzan txertatu ahal izateko asmoz sortu zen joan den ikasturtean *Mintzalaguna* ekimena. Orain, izan duen erantzuna ikusita, irailetik aurrera ere egitasmo honekin jarraitzea erabaki du Aitzol Udala Euskaltegiak, eta erronka berri batekin, gainera, hitanoa bultzatzea.

Mintzalaguna, kalean euskaraz hitz egiten hasteko bidea da euskaldun berri askorentzat. Honela, astean behin elkartzatzen dira, ordu-betez gutxi gora behera, eta euskaltegitik kanpo. Ohiko ikastetxe-ko «matematika hizkuntzatik» atera, eta edozein jardueratan, egoeratan, eta unetan, euskaraz hitz egiteko ohitura hartzeko bi-



Ekimenaren aurkezpenean izan ziren, parte-hartzaileak, koordinatzaileak eta Udaleko ordezkariak. E. EZEIZA

dea da. Parte-hartzaileak edozein tokitan elkartu daitezke: kafetegiak, kaleak, parkeak, mendian...

Mintzalaguna «euskararen alde, modu praktikoan egiteko bide» bezala deskribatzen dute antolatzaileak. Azken batean euskaraz bultzatzeko bide garrantzitsuena hori baita, erabiltzea.

Bestalde, ekimen honek, jendarrean hitz egiten ikasteko balio du, eta lotsak alde batera uzteko.

Joan den ikasturtean ekimenean parte hartu zutenek azaltzen zuten bezala, «hasieran kosta egiten da ingurukoekin euskaraz hitz egitea, baina denborarekin, naturalta-

sunez eta lotsarik gabe egiten ikasten duzu. Joan den ikasturtean hasi zirenek datorrenean ere jarraitzeko asmoa agertu dute. Baina egitasmo hau jende orori zabaldua dago, eta interesa dutenek irailetik aurrera eman dezakete izena euskaltegiaren bertan edo ondorengo telefono zenbakietara deituta: 605 61 21 25 eta 943 65 10 06.

Tolosan ere hizak

Ekimenarekin jarraituz, datorren ikasturterako asmo berri bat dute Aitzol Udala Euskaltegiok, «*Mintzalaguna*ko saioetan, hizak hitz egiten ikastea». Iñaki Azaldegi, Udaleko euskara teknikariaren esanetan eskualdeko herrietan dezentziaz erabiltzen bada ere, Tolosan ez dago hizak hitz egiteko horrenbesteko ohiturarik. Hori dela eta, saio hauetan hitanoa lantzea erabaki dute.

Ekimen honekin gazteak hurbiltzea bilatzen dute, «askorentzat erakaragarriago baita hika egitea, eta ez zuka». Dena den, hitanoa ikasten hasteko, euskara ongi menperatu behar dela uste dute euskaltegiok, «ez baita horren erabilia». Honekin, argi utzi nahi dute ere, *Mintzalaguna* proiektua, euskaldun berriei ez ezik, zaharrei ere zuzendua dagoela.



Urte Berri Egunean Uzturrera igo ziren hainbat lagun, urteurrena zela eta. HITZA

Alpino Uzturre 112 gailurretan izango da

Mendia » Elkartearen 50. urteurreneko ospakizunen baitan, etzi, Gipuzkoako mendi puntuagarri guztietara igoko dira.

JOXEMI SAIZAR

Igande honetan, hau da, etzi, Alpino Uzturre mendi elkartea Gipuzkoako mendi puntuagarri guztietan izango da, elkartearen 50. urteurrena dela eta.

Mendi federazioak argitaratzen duen katalogoan, 112 mendi puntuagarri daude Gipuzkoan. Alpino Uzturre 112 bazkide eta lagun izango dira ekimen honetan parte, adin guztietako, 14 urtetik 86 urtera, batzuk gertuko mendietara (Uzturre, Hernio, Txindoki) joan-

go dira, beste batzuk urrutirago (Aizkorri, Arno, Jaizkibel). Ez dira oso mendi altuak. Eguraldi ona dago iragarrita, beraz, egun polita pasatzeko aukera izango dute. Mendizale bakoitzak elkarteko txartela utziko du egokitu zaion mendiko buzoian, gero beste mendizalaren batek txartel hori jasotzeko eta bere elkartera bidaltzeko, 100 mendien lehiaketan egiten den bezala. Mendi puntan argazki bat ateratzea ere eskatu zaie. Horrelako ekimenak lehen ere egin izan ditu Alpino Uzturrek, baina azken urteotan ez. Orain, 50. urteurrena dela eta, berriro egitea pentsatu dute. Udan ere izango dira Alpino Uzturreko aktibitate bereziak: uztailean Pirineotara eta abuztuan Marokoko Atlasera joango dira Alpino mendizaleak.

Jose Manuel Ortiz izan da garaile Sanjoanetako toka txapelketan

Aisia » Ekainaren 23an jokatu zen norgehiagoka San Frantzisko ibiltokian; Harizpekoek txangoa antolatu dute Iruñeara.

ERREDAKZIOA

Sanjoan jaien baitan, Harizpe jubilatu eta pentsiodunen elkartek toka txapelketa antolatu zuen. Txapelketa ekainaren 23an jokatu zen, San Frantzisko ibiltokian, Betoibar frontoiaren ondoan. Eskualdeko hainbat jubilatut hartu zuten parte ekitaldian.

Emaitzei dagokionez, Tolosaldekoen nahiz Tolosakoaren artean, lehendabiziko postuan Jose Ma-

nuel Ortiz geratu zen. Denera 11 aldiz jo zuen txapa. Eskualdekoetan, bigarrena ere tolosarra izan zen, Juanito Zubeldia hain zuzen ere. Hirugarren postua, eskualdekoen artean, irurar batentzat izan zen, Jesus Vicenterentzat. Tolosakoei dagokionean, Angel Izagirre geratu zen hirugarren.

San Ferminetara txangoa

San Ferminak gainean direnean, Harizpe elkartekoen bidaiatxo bat antolatu du uztailaren 10erako. 09:00etan abiatuko dira San Frantziskotik, Iruñeara joateko. Festa tokira hurbilduko dira lehendabizi eta gero bazkaldu. Izen-ematea uztailaren 7an amaituko da, edo plazak bete arte.



Sanjoanetako toka txapelketa. N. L.

Tolosako Udala

IRAGARKIA
Alkatetza honetik, ekainaren 18ko 1121/2008 dekretuaren bitartez, hasierako onepena eman zion Iuzungo Aldapako 6 zenbakia gaineke Hirigintzako Egitasmenaren proposamenari.
Euskal Autonomia Erledegoiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Gehigarriko 8. apartatuaren arabera, espedientea 20 egun egongo da jendaurrean jarrita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesaturik daudenek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.
Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espedientea Tolosako Udaltzeko Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduta.
Hitzarmena behin betiko onartutaz joko da, alegaziorik ez bada aurkezten jendaurreko informazio epelidaren barmen.
Tolosan, 2008.eko ekainaren 19an. ALKATEA.

Tolosako Udala

IRAGARKIA
Tolosako Udaltzatzak, 2008ko ekainaren 3an egindako osoko bilkuran, hasierako onepena eman zion Iuzungo Aldapako 6 zenbakia gaineke Hirigintzako Egitasmenaren proposamenari.
Euskal Autonomia Erledegoiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Gehigarriko 8. apartatuaren arabera, espedientea 20 egun egongo da jendaurrean jarrita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesaturik daudenek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.
Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espedientea Tolosako Udaltzeko Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduta.
Hitzarmena behin betiko onartutaz joko da, alegaziorik ez bada aurkezten jendaurreko informazio epelidaren barmen.
Tolosan 2008ko ekainaren 17an - ALKATEA

Tolosako Udala

IRAGARKIA
Tolosako Udaltzatzak, 2008ko apirilaren 29an egindako osoko bilkuran, hasierako onepena eman zion Uzturre kaleko 8 zenbakia gaineke Hirigintzako Egitasmenaren proposamenari.
Euskal Autonomia Erledegoiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Gehigarriko 8. apartatuaren arabera, espedientea 20 egun egongo da jendaurrean jarrita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesaturik daudenek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.
Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espedientea Tolosako Udaltzeko Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduta.
Hitzarmena behin betiko onartutaz joko da, alegaziorik ez bada aurkezten jendaurreko informazio epelidaren barmen.
Tolosan 2008ko ekainaren 17an - ALKATEA

«Tolosandblues jaialdiari esker izan du jendeak musika mota hau ezagutzeko aukera»

INIÑO MARTIN Tolosandblues jaialdiaren antolakuntza taldeko kidea

Kultura » Gaur kontzertu bat izango da, eta bihar bi, Tolosandblues jaialdiaren baitan; maila handiko taldeak izango dira.

INIÑO TERRADILLOS

Atzo ekin zion Tolosandblues jaialdiak, baina ez musikarekin, zinemarekin baizik, aurtun zinea ere jarri baitute egitararen baitan. Gaur eta bihar, ordea, musikak hartuko du protagonismoa, hiru kontzertu handirekin. Tolosako Udalak antolatuta eta Ezpeleta elkarteak, Fronton kafetegiak, Foru Aldundiak, Insalusek eta Euskadi-ko Kutxak lagundurik jaialdiak lau urte beteko ditu. Aurtengo edizioaren berri eman du Iníño Martín antolakuntza taldeko kideak.

The Lazy Jumpers taldea ariko da gaur Frontonen. Zer moduzkoak dira?

2002an sortu zen talde hau Barzelonan. 40-50. hamarkadan egindako musika lantzen dute gehien bat, blues, rhythm & blues, swing edota boogie-a. Lau kidek osatzen dute taldea, eta zuzeneko oso indartsua, animatua eskaintzen dute, janzkera ere asko zainduduz, garaiko itxuragoratzan dutelarik. Mitch Woodf piano jotzailer handiarekin disko bat ere grabatu zuteniaz, eta horrelako artista batekin lan bat egiteko talde handi baten aurrean gaudela esan behar. Katalunian oso ezagunak



N. LATABURU

dira, eta kontzertu ugari eskaini dituzte Frantzian, Holandan edota Espainian, esaterako. Nik duela 2 urte Hondarribian zuzenean ikusteko aukera izan nuen, eta oso interesgarria iruditu zitzaidan. Uste dut aurtengo sorpresa izango direla.

Little Charlie and the Nightcats da aurtengo talde izarra. Hauek bihar ariko dira Plaza Berrian.

Euskal Herrian eskainiko dute kontzertu bakarra izango da biharko, eta ziurrenik gurean ez daberrito talde handi hau ikusteko aukera izango. Estatu Batuetan da goeneko ez dute talde bezala kontzerturik eskaintzen, bertatik kanpo, kasu honetan bezala, bai, baina euren azken zuzenekoak direla talde bezala esan daiteke. Ameriketako blues talderik onenetarikoa da, nik duela 7 urte, Getxon ikuste-

ko aukera izan nuen, eta ikusi dudana kontzertu onenetarikoa iruditu zitzaidan. Chicagoko blues gogorra eta Texasiko swing eta jazz berrasmatu eta rockabilly, proto-rock'n roll, swing jauziak nahastu dituzte euren musikan. Taldean ahotsa nabarmetzen da, oso indartsua baita, eta baita gitarrak-jotzailea ere, goi mailakoa. 9 disko kaleratu dituzte, azkena 2006an. Luxuxko kontzertua da beraz, ez galtzeko modukoa.

Hirugarren musika taldea Tres Mil Hombres izango da. Hauek ere, bihar ariko dira, Frontonen.

Hauen kontzertua Little Charlie and the Nightcats taldearen Plaza Berriko emanaldia amaitu eta handik 30 minutura hasiko da, guztiak izan dezaten aukera emanaldi guztiak ezagutzeko. Laukote hau 2000. urtean sortu zen Madrilen, eta afroamerikar musikak lantzen dute: jazz, blues, soul, funk, reggae, swing, rhythm'n blues... Espainian oso ezagun egin dira, hasieran Tres Hombres bezala, eta Tres Mil Hombres bezala ondoren. Jaialdi

garrantzitsuetan hartu dute parte, eta lau disko kaleratu dituzte. Zuzeneko oso indartsua dute, eta nabarmenezkoak dira bajuak eta bateria-riak duten maila.

Aurtengo edizioaren maila nolako dela esango zenuke?

Orain arteko onena da. Little Charlie and the Nightcats bezalako talde bat ekartzea asko kostatzen da; kasu honetan, urtarrean hasi ginen kontzertua kudeatzen. Horre-

Orain arteko jaialdi onena izango da; Euskal Herrian erreferente izatea nahi dugu Tolosakoa

gatik, espero dugu jende ugari joatea kontzertura. Aurtengoa Tolosandbluesen laugarren urtea da, eta urteko urtera indartzen doala esan daiteke. Euskal Herriko jaialdien artean gurea erreferente izatea da helburua.

Nola animatuko zenuke musika hau ezagutzen ez duen herritar bat kontzertu hauetara joateko?

Tolosandblues jaialdiaren lehen urtean jendeak ez zuen oso argi zer zen musika hau, eta gero, kontzertuak amaitu ostean, oso gustura geratu ziren. Askok jazz musikarekin nahasten dute, baina oso desberdina da, mugituagoa, animatuagoa, indartsuagoa... Kontzertu hauei esker izan du jendeak musika hau ezagutzeko aukera, horregatik, gaur eta biharko saioetara animatu nahiko nituzke.

» EGITARAUA

Gaur

■ **23:00.** The Lazy Jumpers, Fronton kafetegian.

Bihar

■ **22:30.** Little Charlie and the Nightcats, Plaza Berrian.

■ **00:30.** Tres Mil Hombres, Fronton kafetegian.



Esperientzia «paregabea» Ingalaterran

HEZKUNTZA » Hirukidek elkartrukea burutu berri du, izan ere, DBHko 4. mailako 19 ikasleek eta hiru irakasleek Ingalaterran igaro dituzte 10 egun. Ikasleak bi taldetan egon dira banatuta: 10 Ross-on-Wyden eta 9 Stourporten. Eskolak, ohiturak eta toki esanguratsuenak ezagutzeaz gain, in-

gelesa etengabe praktikatu dute. Berrikuntza bezala, talde bat Londresean joan da eta bertan, besteak beste, Natur Historia Museoa, Buckingham Palace edo Royal Albert Hall antzokian izan dira. «Esperientzia paregabea izan da eta ingelesak gureru urrian etortzea espero dugu». HITZA

Laburrak

Udal Musika Eskolan matrikula egiteko epea

MUSIKA » Eduardo Mocoroa Udal Musika Eskolak jakitera eman nahi du, 2008/2009 ikasturteko matrikula epea zabalik dagoela eta ekainaren 30a izango dela azken eguna bertan izena emateko. Idazkaritzako ordutegia 09:30etik 13:30era izango da asteleheneetik ostiralera.

Jai Batzordearen bilera, gaur, Kultur Etxean

GIZARTEA » Jai batzordearen bilera izango da gaur, igaro berri diren San Joan jaien inguruan balantzea egiteko helburuz. Bilera Kultur etxean izango da, 19:00etatik aurrera.

Musika ugari gaur, zuzenean, Bonberenean

MUSIKA » 22:30etatik aurrera talde ugari zuzenean entzuteko aukera izango da gaur, Bonberenean, Bjerga iversen, vaseline, Gora japon eta Starter flater taldeak, hain zuzen ere. Hauetatik, bi talde atzeritarrak dira, hau da, Bjerga iversen talde norvegiarra eta Starter Flater talde Holandarra.

Telefonoak

Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

E Elkarrizketa

JON FERNANDEZ DE ANTONA » Zaldizkoa eta Zaldi Egunaren antolatzailea

Leaburu » Zaldi Eguna izango dute bihar Leaburun San Pedro jaien barruan; antolaketa lanetan aritzen zaldizko gaztearen ibilbidea eta iritziak jaso ditugu hemen.

JOXEMI SAIZAR

Jon Fernandez de Antona (Leaburu, 1988) duela gutxi sartu da zaldiaren munduan, baina gogotsu ari da *raid*-etan (mendiko lasterketak) parte hartzen bere behorrek eta biharko Zaldi Eguna aritu da prestatzen herriko gazteekin batera. Gure eskualdean afizio handia ari dela sartzen dio.

Nola pentsatu duzue Zaldi Eguna antolatzea?

Festa pixka bat jartzeko herrian, jaiak direla eta.

Zer izango da?

Hiru orduko zaldi ibilaldia egingo dugu Berastegi aldera, Uli ingurura eta Gaztelutik barrena, pausoa, mantso. Gero bazkaria, perratze erakustaldia (doma naturala eta *western*), hazitarako zaldia herrikoiei eta kanpokoei erakutsi, gero zaldia eta astoaren arteko apustua, zaldia 900 kiloko harria eta astoak 550 kilokoarekin, eta bukatzeko parrandarako aukera ere izango da.

Non ditorriko da jendea?

Itziartik, Leitzatik, Alegitik, Oiarzun aldetik... etortzekoak dira.

Noiz hasi zinen mundu honetan?

Duela bi urte. Lehen moto krosean ibiltzen nintzen eta motoa moxal baten truke aldatu nuen. Lehengusak soldaduska zaldien artean egin zuen. Hark erosi zuen moxala, harekin probatu, gustatu eta beste moxal bat erosi nuen. Gero hura Kordoban bizi den oriotar bati aldatu nion behor baten truke.

Nolakoa da?

Anglo-arabiarra da, ama inglesa eta aita arabiarra. *Talita Kumi* (Altxa haurre) du izena jaiotza kartan, baina guk *Campeona* deitzen diogu. Orain beste moxal bat daukat, urtebetekoa, eta zaldia ere bai. Moxala hiru urte bete arte ezin da montatu. Orduan lasterketak egingo prestatu nahi dut. Zaldia be-



JOXEMI SAIZAR

«Garestia ez da zaldia erostea, hura mantentzea baizik»

rriz, zaharra da, hazitarako, paseatzeko erabiltzen dut. Beste zaldi bat banuen, baina hil egin zen.

Garestia al da zaldi bat?

Garestia ez da erostea, mantentzea baizik. Etxean belazeak badituzu ondo, baina hipika batean eduki behar baduzu...

Eta noiz hasi zara konpetitzen?

Raid-etan aurten hasi naiz, Urte Zaharreko juergan, zaldian ibiltzen den Leitzako Nagore Larralde zirkuitua. Lau titulu teoriko eta lau praktikoko atera behar dira konpetitzeko. Berak bazituen eta nik atera egin nituen. Nire behorrek atera eta bigarren proban irabazi egin zuen. Nafarroako Txapelketarako sailkatu da. Nafar-

roan gaude federatuta biok. Hirugarrenean nik korritu nuen eta bigarren gelditu nintzen. Nahiago dut bera ateratzea, ni berotu egiten naiz eta, pazientzia hartu eta zaldia kontrolatu behar da.

Hemen inguruan ba al da mendiko lasterketak?

Ez, Araban eta Nafarroan bai. Uztailaren 12an Ormaiztegin aterako naiz. Etxean korritzeko kapritxoa daukat. Gipuzkoako Txapelketa izango da, besterik ez dagoelako. 40 km-ko karrerak izaten dira erdibidean kontrola izaten da: 100 pultsazio baino gehiagotan jartzen dira zaldia, gelditu eta lasaitu behar dute 56ra jaitsi arte jarraitu ahal izateko eta albaitariak begira-

tu egiten diete herrenka ari diren edo deshidratatuta ote dauden edo. Edozein txorakeriagatik atzera botazen dituzte.

Zaldizkoaren pisuan ez al duite mugarik jartzen?

40 km-kotan ez, baina 80 km-tik gora bai, 70 kilo pisatzea dauka zaldizkoak, sila eta guzti, bestela beruna jartzen dizute pisu horretara iritsi arte. 80koa egiteko aurretik bi 40ko egin behar dira. Gero 120 km-koak eta 160 km-koak ere bada.

Zein adineko zaldia izaten dira?

40koan lau urtekoak eta 80koan 6-7 urtekoak. Behorrek, zaldi zikirtuak eta zaldi osoak ateratzen dira. Zaldi osoak dira problematikoe-

nak, behorrek ikusita asaldatu egiten direlako karrerako geldialdietan, lasaitu beharrean. Pultsazioetan errazena jaisten zaldi zikirtua izatea da, behorra ere nahiko historikoa izaten delako. Horrekin suertea daukat, *Campeona* historika da, baina pultsazioak azkar jaisten zaizkiolako.

Zaldi gainean pazientzia hartu eta zaldia kontrolatu egin behar da; ni berotu egiten naiz

Zaldi osoak dira problematikoenak, behorrek ikusita asaldatu egiten direlako

Bihar ikuskizun ederra izango da; zaldia erakargarriak dira eta zer ikusia izango da

Abaltzketan izan berri den karreran ez al zara atera?

Ez, karrera motzak oso kaltegarriak dira zaldientzat eta arrisku handia dute.

Nola prestatzen duzu zaldia?

Ekarri nuenean oso gutxi ibilia zen, ondo domatua zegoen, baina Kordobako terrenoak desberdinak direnez denekin ikaratu egiten zen. Pazientzia hartu behar da, askotan joan mendira, pausoa ordu asko ibili. Hemen entrenatutako zaldia Arabako lautadetan oso ondo ibiltzen da.

Eta zaldizkoa?

Gu prestatzeko ariketa fisikoa egin behar dugu, zaldi gainean asko nekatzen delako, batez ere bizkarra, tentsioagatik. 120 km-ko *raid*-etan, zaldia gutxiago nekatzeko, zaldizkoak kilometro asko oinez egiten ditu eta horretarako prestatu egin behar du, noski.

Jende gaztea ibiltzen al da?

Denetatik ibiltzen da, baina diru asko kostatzen dela hartu behar da kontuan: auto indartsua, zaldia eramateko atoa, bidaiak urrutira, egonaldia...

Zer esango zenuke bihar jendea Leaburura joateko?

Ikuskizun polita izango da. Zaldia erakargarriak dira eta zer ikusi izango da. Eta parranda egin nahi duenak ere izango du aukera.

txokoa **h**

2 zerbitzu oso zozketan

kolorea, ditzira, forma, mozketa, orrazkera eta ilerako tratamendurako produktua.

irabazleak:

- o Amaia Ramiro (Ikaztegieta)
- o Arantxa Dorransoro (Amarotz)



ESTILISTAK **honekin**



www.honekin.com
honekin@honekin.com
943 67 22 44
Santa Maria plaza 1 • TOLOSA



Ibarrako arraunlariak EHNA tramitatzera deitu dituzte herritarrik. HITZA

Ibarrako arraunlariak eta Bai Euskal Herriari taldea EHNAREN alde

A. IMAZ

Bai Euskal Herriari eta Ibarrako arraunlariak herritarrengana zuzendu dira, gaur 18:00etatik 20:00etara EHNA egitera joateko eskatuz.

EHNA tramitatzeko aukera 18:00etatik 20:00etara egongo da udaltxean. «3 argazki, 15 euro eta errolda agiria eman beharko dira». Bi taldeek aipatu dutenez, «herritar bakoitzak EHNA eginda aurrera pauso txiki bat ematen dugu Euskal Herria aitortzeko».

«Euskal Herriaren alde»

Arrauna eta Euskal Herriaren alde lanean aritzeak parekotasunak dituztela aipatu dute: «Biak dira lan gogorrak, konpromisoa eskatzen dutenak, baina aldi berean laguntasuna, gozamina eta poztasuna ematen dutenak. Euskal herritar guztiok traineru handi batean egin behar dugu arraun. Norabide berdinean euskal estatuaren bandera lortzeko. Paladaz-palada politikari baina beti aurrera Euskal Herriaren alde».



Pedro Deunaren jaietan haurrak

ASTEASU ● Joan Deuna joan omen zen eta Pedro Deuna iritsi omen da, hori dirudi eskualdeko herriko jaien egitarauari erreparatuz gero. Santuak santu jaiak hemen gainean dira eta Asteasun atzo haurrak izan ziren protagonista. Korrika goizean, marrazketan ondoren eta saltoka azkenean. Izerdia santuen ezaugarri balitz, Asteasun santu ugari bildu ziren atzo. A.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Neska euskalduna eskaintzen da udan haurrak zaintzeko. 615 72 06 17.

■ **Zaintzailea.** Ermakumea behar da etxeko lanak egin eta bi ume zaintzeko. 627 46 58 10.

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuak deitu: 657 23 00 11/634 91 94 82.

■ **Trikitixa.** Egoera onean dagoen trikitixa salgai. 669 67 36 49.

Laburrak

Poxpolo, Mokolo eta konpainia gaur 18:00etan

GAZTELU ● Gazteluko udalak eta Uli Mankomunitateak antolatu eta Kutxako kultur ekintzak sustatutako antzerkia emanaldia egongo da gaur 18:00etan Gazteluko pilotalekuan. Antzerkia Poxpolo, Mokolo eta konpainiaren *Run Run* antzezlan izango da. Antolatzaileen esanetan «antzezlan hau kolorez beteriko emanaldia da: abesti, jolas eta magiaz beterik».

Haurrentzat antzerkia gaur 18:00etan Kultur Etxean

ELDUAIN ● Gaur 18:00etan Elduaingo Larte Kultur Etxean *Elefante bitxia* haurrentzako antzerkia eskainiko dute. *Perla Gillermina dortoka* eta *Elefante bitxia*, ikuskizun honek ipuin batzuk dira eta bertan, hitzak, txotxongiloak eta neska mutilen fantasiak dira sormenezko jolas baten protagonistak. 3 eta 8 urte bitarteko umeentzat dago zuzendua.

Udalbatza osoaren ohiko bilkura astelehenean

IBARRA ● Udalbatza osoaren ohiko bilkura egingo da Ibarrako udaltxean ekainaren 30ean, astelehenean, 18:00etan. Eguneko gai-zerrenda 5 puntuk osatuko dute. Hauen artean, «dedikazio Berezi-ko Berariozko tarteko osagarria ematea udal aparejadoreari» aurkitzen da. Azken asteartean egin ohi bada ere bilkura, hilabete honetan astelehenean egingo dute.

Gipuzkoako txapelaren bila eskualdeko lau segalari, etzi

Sega ● 'Urki', Goikoetxea, Aranalde eta Arteaga lehiari arituko dira Zaldibian 12:00etatik aurrera.

ASIER IMAZ

Gipuzkoako Seg Txapelketaren finala ekainaren 29an, etzi, jokatuko dute Zaldibiko Ibarburu base-rriko Etxeberriko belardian 12:00etatik aurrera.

Bertan lau segalari lehiatuko dira: Jexuxmari Ormaetxea *Urki* orendaindarra, Andoni Goikoetxea eta Mikel Aranalde gazteluarrik eta Arkaitz Arteaga baliarraindarra. Saillapen faseko lau segalari onenak izan ziren hauek, bosgarren berriz Garikoitz Etxeberria geratu zen, ondorioz finaletik kanpo geratu zen amasarra.

Finala azkenean Zaldibian

Etzi Joxe Gabirondoren lekua nork hartuko duen erabakiko da Zaldibian. Gazteluarrik ez du ira-

gan urtean lortutako txapela berri janzterik izango, ez baita aurtengoa Gipuzkoako Seg Txapelketan lehiatu. Bere orde bi herritar, orendaindar bat eta baliarraindar bat ariko dira txapelaren lehiari.

Hasiera batean, antolakuntzak finala Larraitzen jokatzeari aurrekusi zuen, baina «belarraren egoera ez egokia dela-eta» Zaldibian jokatu da.

Autoz joaten denarentzat apartekalekuak Zaldibiko plazatik gertu jarriko direla aipatu dute antolatzaileek, Etxeberriko belardia handik 200 metrotarra aurkitzen omen delako.

Sega demari dagokionez, lau segalari ordubeteko saioa egin beharko dute. Belar kilo gehien ebakitzen dituenak, edo hobe esanda, belar kilo gehien pisatzen dituenak jantziko du 2008. urteko Gipuzkoako txapela.

Saillapen fasean 'Urki' nagusi

Gipuzkoako Seg Txapelketan ekainaren 8an hasi zen Zizurkilten. Bost segalari abiatu ziren txapela-

ren bila eta saillapen faseko 3 jardunaldi jokatu ostean, 4 segalari saillatu dira etziko finalerako. Saillapen fase bakoitzeko postuen arabera segalari bakoitza puntuak irabazten joan da. Puntu gehieketa egin ostean, lehen lau segalariak finalerako txartela lortu dute. Lehen lehiari Andoni Goikoetxeak egin ostean, lehen lau segalariak finalerako txartela lortu dute. Lehen lehiari Andoni Goikoetxeak irabazi zuen eta ondorengo bietan Jexuxmari Ormaetxeak. Aranalde eta Arteagaren arteko lehia ere polita izan da hirugarren postuaren borrokan. Lehen jardunaldian gazteluarra nagusitu bazen ere, bigarren goan baliarraindarrik hartu zion aurrea. 3. jardunaldiaren ostean Aranalde nagusitu da.

» AZKEN SAILKAPENA

3. jardunaldiren ondoren.

| | |
|-------------------------|----------|
| 1. <i>Urki</i> | 23 puntu |
| 2. Andoni Goikoetxea | 19 puntu |
| 3. Mikel Aranalde | 14 puntu |
| 4. Arkaitz Arteaga | 13 puntu |
| 5. Garikoitz Etxeberria | 4 puntu |

Saillapen faseko 3. jardunaldian Jexuxmari Ormaetxea, *Urki*, nagusitu zen Errezilen. HITZA



Natural England, Ancient Tree Forum eta Woodland trust taldeko kideak, Joxe Migel Elozegi leitzararekin, 200 urtetik gora dituen pago baten aurrean. N. GARZIA

Egun hauetan Ingalaterrako Natural England, Ancient Tree Forum eta Woodland Trust taldeko zortzi lagun izan dira Leitzalarrean, lehengo urtean moarratutako zuhaitzak ikuskatzen.

Natura-ondarea zaintzen

NAIARA GARZIA

Egun hauetan, joan den urtean bezalaxe, Ingalaterrako Natural England, Ancient Tree Forum eta Woodland trust taldekoak Leitzalarrean izan dira, baita inguruko beste zenbait lekuetan ere. Dagoeneko urteak daramatzate hona etorri, zuhaitz zaharrak nola moarratzen (podatzen) diren ikusteko.

Miel Mari Elosegik azaldu duenez, «industrializazioa Ingalaterrara hona baino askoz lehenago iritsi zen eta 100 urte baino gehiago ziren han zuhaitz moarratu ez zutela. Ikusi zuten hango zuhaitz zaharrek karga handia hartzen zutela, erori egiten zirela, eta galdu egiten zirela. Horregatik, garai batean nola moarratzen zen jakin nahi zuten». Horrela hasi zen, beraz, talde hauen eta leitzar hauen arteko harremana.

«Azken urte hauetan Leitzaldean 50 zuhaitz inguru moarratu ditugu (eta Ingalaterran 2.000 inguru) eta egun hauetan Leitzaldekoak nola doazen ikustera etorri dira», dio Elosegik. «Hona etortzen hasi zirenean ikusi zuten hemen Leitzan lehen moarratutako zuhaitz mordoa zegoela eta zuhaitzetan lan egiteko kultura hori ez zela oraindik galdu. Hona ekarri nuenean zera esan zuen, hemen bageneukala zerbait Europan zehar batere arrunta ez zena». Antza denez, lehen Europako leku gehiagotan ere moarratzen ziren zuhaitzak, baina orain ohitura hori desagertu egin da leku gehienetan».

Ingeles talde hau etortzen hasi zenean hemen oraindik bazen jen-



Trepalari taldekoak otsailean Aitzmurdiko pago bat moarratzen. J.M. BARRIOLA

dea bere gazte denboran lan hori egin zuena, Migel Barriola esaterako. «Orduan hemengo moarratzeko era eta haiena ezberdina zela ikusi zuten eta pentsatu zuten elkarrekin lan egin behar genuela ikasteko». Duela urte pare bat Joxe Migel Elozegi eta Juan Mari Zabaleta Ingalaterrara joan ziren eta «haiekin moarratzen aritu ginen, gu aizkorarekin, gure erara, eta haiek euren erara. Gero ingelesak hona etorri ziren. Orain ikerketa bat egiten ari gara elkarrekin leitzarrik, Oiartzungo Aiako Harrikoak eta Londoneko Parke eta Naturguneetako arduradunak».

Ikerketa aurrera eramateko Ingalaterrako langileak etorri ziren eta bai aizkorarekin bai motozerrarekin (ingeles eran) moarratzen aritu ziren eta zenbait zuhaitzetan bi erak nahasi zituzten. Orain adar guztiak kontatu dituzte, sistema bakoitzarekin zuhaitzak nola erantzuten duten ikusteko. «Lehendabiziko urtean ikusten da kimu berriak nola ateraten diren eta nahiko ongi doaz. Dena den, ez genuen zuhaitz onenetan

lan egin. Ez genituen zuhaitz horberenak moarratu arbola galdu baitaiteke eta badaezpada galtzeko arrisku handiagotan zeuden arbolak moarratu genituen. Batzuk ez doaz hain ongi, baina beste batzuk bai». Elosegik azaldu duenez, elkarlanean jarraitzeko asmoa dute.

Ikerketaren onurak

Miel Mari Elosegik prozesu honen guztiaren onurak zeintzu diren azaldu du. «Alde batetik lehengo lan egiteko teknikak berreskuratzeko ditugu, bestalde, moarratutako arbolak ongi eginez gero urte luzetan bizitzen dira, eta biodibertsitatearentzat (animalia, landare, onddoak...) bikainak dira. Gainera, egurra aprobetxatu egiten dugu eta garrantzitsuena dena, zuhaitz hauek kontserbatzen eta baloratzen laguntzen dugu».

Garai batean zuhaitzak nola moarratzen zituzten ikasteko, garai batean horretan aritu ziren herritarrekin lanean aritu dira, azkeneko 50 urtetan ez baita ia moarratu. «Lehengo urtean segurtasunari

buruzko ikastaro bat antolatu genuen Trepalari taldekoekin, eta haiek ere aizkoraz lan egiteko trebatu genituen. Inguruko basozainak ere etorri ziren, eta ondorioz, Berueten, eta baita Azpirotzen ere berriz ere moarratzen hasi dira. Honetaz gain, Migel Barriola Orbaizetan izan zen eta Iratin moarratzen ibili ziren».

Lehengo urtean 30 zuhaitz inguru moarratu zituzten eta aurrean beste 15 moarratu dira: 4 Urkizun, Izaietan beste 3 eta Aitzmurdin beste 8.

Etorri diren 8 lagunetatik batzuk lur komonaletan interesatuta daude eta herriko propietateak nola kudeatzen diren ikusi nahi dute. «Europar kongresu bat egiten da horri buruz eta leku ezberdinak ikusten dabilta eta behar bada lege bat jarriko dute».

'Europako sekretua'

Ancient Tree Forum taldeko kideek azaldu dutenez, «zuhaitz zaharrak dauzkagula erakusteko etorri gara honera, oso lotuta gaude zuhaitz zaharrek duten garrantzia sustatzeko, jendeari helarazten. Bestalde zuhaitz zaharrak bizirik mantentzeko zer egin behar den aztertzen ari gara. Honetarako garrantzitsu da zuhaitza mozte, baina baita ingurua ere, argia eta hezetasuna».

Talde honetako kideen ustez, bertakoak eta ingurukoak ohituta daude zuhaitz hauek ikustera, «baina Europan gaur egun oso leku gutxietan topa daiteke hau. Europan hobekien gorderik dagoen sekretua da txoko hau».

Frontis enpresak antolatuta, pilota partidak gaur Amazabal Pilotalekuan

Pilota » Bestalde, plazan Plazako XVI. Txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte 19:00etatik aurrera.

N. GARZIA

Gaur Leitzan Amazabal Pilotalekuan eta plazan pilota partidak jokatuko dira. Amazabalen Frontis enpresak eta Udalak antolatuta, 3 partida jokatuko dituzte: lehenengo Aurrera Pilota Eskolako pilotariak elkarren aurka ariko dira. Ondoren, Antxiak eta Garmendiak Alvaro Gomez eta Altunaren aurka jokatuko dute. Azkenik, Nafarroako 4 t'erdiko txapelketaren final-zortzirenak jokatuko dituzte Mikelek eta Bengoetxea VII.ak. Partidak 19:30ean hasiko dira.

Bestalde, plazan Plazako XVI. Txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte 19:00etatik aurrera.

Hiru pertsona atxilotu dituzte Gipuzkoan, heroinarekin trafikatzegatik

Droga » Tolosaldean, Donostian eta Pasaian banatzen zuten droga eta epailearen esku utzi dituzte.

ERREDAKZIOA

Ertzaintzaren agenteek hiru pertsona atxilotu dituzte, Tolosan, Donostian eta Pasaian heroina banatzea leporatuta. Atxilotutako en etxeetan egindako miaketetan, droga nahasi eta banatzeko erabili ohi den materiala topatu dute, Eusko Jaurkitzako Herrizaingoa Sailak gaur jakinarazi duenez.

Ikerketak hil honen hasieran hasi zituzten, Ertzaintzaren agenteek jasotako informazio baten arabera Trintxerpe auzoan (Pasaia) drogarekin trafikatzeko ari baitziren, baita Tolosan eta inguruko herrietan ere. Horren aurretan, kontsumitzaileek saltzailearekin harremanetan jartzeko erabiltzen zuten taberna baten inguruan operazioa egin zuten agenteek.

Joan den ostiralean, Ertzaintzaren agenteek Pasaia 49 urteko gizon bati atxilotu zuten bere etxearen inguruan. Polizia aldearen susmoak atzemandako lagunari droga ematen zion gizonarengana bideratu ziren orduan. Hor-taz, atzo, Donostiako 45 urteko bizilaguna eta Pasaia 40 urteko bizilaguna atxilotu zituzten.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Alegia.** Dantza taldearen ikas-
turte bukaerako emanaldia izango
da Kultur Etxean 22:00 tan.

Jaiak

■ **Asteasu.** Koadrilen eguna:
14:30etan bazkaria; arratsaldean
jolasak; 19:00etan herriko musika-
rien kalejira; 21:30etan herri afaria
plazan; ondoren Trakets taldea.

Antzerkia

■ **Tolosa.** Tic-Tac taldeak eta udal
antzerki tailerretako ikasleek *Por
mis muertos* antzezlan eskainiko
dute Leidor aretoan 22:30ean.

Musika

■ **Tolosa.** Bjerga/Inversen Vaseli-
ne, Gora Japon eta Stater flater tal-
deak Bonberenean 22:30ean.
■ **Tolosa.** The Lazy Jumpers taldea
23:00etan Frontonen, Tolosand-
blues jaialdiaren barruan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Desayuno en Pluton* filma
emango dute Leidor aretoan aste-
buruan: larunbatean 19:30ean eta
igandean 22:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin
Jose Iraola, 10. 943 672438.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Na-
gusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya
kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkariaren adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik.



Udari ongietorria

URKIZU • Urkizuko paraje ederrak au-
keratu dituzte beste urte batez Et In-
carnatus orkestrako kideek solstizio
kontzertua eskaintzeko. Udari ongie-
torria emateko egin ohi dute emanal-
di hau. Hain zuzen, pasa den igande-
an eguraldia lagun izan zuten eta ho-
rrek kontzertua are eta gehiago
edertu zuen. Halaber, jende gehiago
animatu zen Urkizura hurbiltzera doi-
nu gozoekin gozatzeko. Et Incarnatus
orkestrakoek Laskorain eta Ereskitxo
abesbatzekin batera aritu ziren, Migel
Zeberioaren gidaritzapean, irudian
azaltzen den bezala eta bai musika-
riak bai ikus-entzuleak gustura agertu
ziren; kontzertuaren amaieran, gaine-
ra, jatekoa eta edatekoa banatu zuten
bertaratuentzat. Goiz pasa polita izan
zuten, beraz, eguzkiak eta musika
onak lagunduta. J. SAIZAR

A Agurrak



Urte askoan!

Urko Arsuaga Lizarra (Irura).
Gaur 2 urte. Zorionak eta ondo
pasa familia guztiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko
leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H.
INSTITUTUA



ziklo guztiak
euskaraz

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

► **Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak**

► **Mekanizazioa**

► **Soldadura eta Galdaragintza**

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra